



Aurtengo Titereszena egitasmoaren aurkezpenean izan dira erakundeetako eta Topic zentroko ordezkariak. JOSU ARTUTXA

Nazioarteko artista «onenenak» Titereszenan

Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak hamar urte betetzen ditu aurten, eta urteurren borobilaren harira, nazioarteko artista «onenen» lanez gozatzeko aukera izango da ikasturtean zehar // 3



Batumore batukada taldearen tailerra, Elduainen. IRATI SAIZAR

Udako festak azkenenera ari dira iristen, eskualdeko herri eta auzoetan

Tolosako Izaskun eta Bedaio auzoetan eta Elduainen, Zizurkilen, Lizartzan eta Alkizan jai giroa izan dute nagusi asteburuan, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izan delarik // 5

Xabier Balerdik «udalean lan egiteko» utzi du Osakidetzan zuen postua

Tolosako Udaleko lanpostua eta Osakidetza kargua «bateraezinak» direla azaldu du EAJren udal taldeak // 2

Kontxako Bandera lortu dute eskualdeko hiru arraunlarik

Ohiane Iraola tolosarrak Oriorekin irabazi du, eta Jon Lizarralde eta Endika Lopez tolosarrek Hondarribiarekin eskuratu dute garaipena // 7

Joseba Otaegi eta 'Arria V.a' Pentatloia-aren finalerako sailkatu dira

Azpeitian asteburuan jokaturako kanporaketan lehen eta bigarren postua lortu dute; Iñaki Errazkin tolosarrak ez du lortu finalerako txartela // 6

Iurrek lortu du Hondartzako Bolei Txapelketa

Tolobolei elkarteak antolatutako ekimenaren hamargarren urtea izan da, eta 32 taldek hartu dute parte denera // 4

Ikasturte berrirako ikastaroak prest ditu Zizurkilgo Udalak

Haur, gazte zein helduei begirako ikastaroak antolatu dituzte Zizurkilen; izena emateko azken eguna irailaren 25ean izango da eta ikasturtea urriaren 1ean hasiko dute.

Irati Saizar Artola Zizurkil

Herri askotan bezala, Zizurkilen ere prestatu dituzte dagoeneko ikasturte berrirako ikastaroak. Urriaren 1ean hasiko dira gehienak, eta ekainaren 19an amaituko dira horietako asko. Ez guztiak ordea, izan ere, ikastaro laburrak ere antolatu dituzte.

Izena eman nahi duenak Zizurkilgo udal bulegoetan egin beharko du, edota 943 69 10 12 telefonora deituta, urriaren 25a baino lehen. Izena ematearekin batera egin beharko da ordainketa. Bi edo ikastaro gehiagotara izena ematen duenak ordainketa bi epetan egiteko aukera izango du.



IKASTAROAK

Haurrenzat

Antzerki tailerra. 2013-2007 urte-en artean jaiotako umeentzat, ostiralean, 18:00etatik 19:30era; 90 euro.

Helduentzat

Patchwork. Asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara; 100 euro.
Yoga. Astelehenetan eta asteazkenetan, 10:30etik 20:00etara; 135 euro.

Pilates aurreratua. Astearte eta ostegunetan, 18:30etik 19:30era; 140 euro.

Sabel dantza. Astelehenetan, 19:00etatik 20:30era. 140 euro.

Forman jar zaitez. Astelehen eta ostiralean, 17:55etik 18:55era; 135 euro.

Zumba. Asteazken eta ostiralean, 19:30etik 20:30era; 135 euro.

Dancehall. Asteazkenetan, 19:15etik 20:15era eta larunbatetan 11:30etik 12:30era; 100 euro.

Ingelesko mintzapraktika. Asteazkenetan 18:30etik 20:00etara

Plazida Otaño liburutegian. First maila; 120 euro.

Erretiratuentzat

Gimnastika. Astelehen, asteazken eta ostiralean, 10:00-11:00.

Joskintza eta eskulanak. Ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara.

Yoga. Astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 11:30era.

Ikastaro laburra helduentzat

Sukaldaritza. Atxulondo tabernan, 19:00etan, Xabi Tellorrek; 15 euro, ikastaro bakoitza (3 ikastaroetara izena ematen duenak 40 euro). Urriak 15 (udazkeneko sukaldaritza), azaroak 12 (ehiza) eta abenduak 10 (Gabonetarako menua).

Bitxigintza. Larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara, Agara Agirrerrek; urriak 5, 19, 26, azaroak 16, 30 eta abenduak 14; 60 euro.

Ikastaro laburrak umeentzat

Arte tailerra Ander Ortiz de Murua-ekin Atxulondo kultur etxean, la-

runbatetan, 11:00etatik 13:00etara. Urriak 5, 19 eta azaroak 16 eta 30; 20 euro.

Bukalai dantza taldea

8 talde osatu dira eta ikastaroak astearte, asteazken eta ostegunetan emango dira.

Loatzo musika eskola

Informazio gehiago 943 69 18 57 telefonoz zenbakian.

Iriarte kultur etxeko ikastaroak

Eskulanak. Ostiralean, 15:00etatik 17:00etara; 100 euro.

Helduentzat gimnastika. Astelehenetan eta asteazkenetan, 11:15ean; erretiroetuek 80 euro, gainerakoek 110.

Memoria tailerra. Asteazkenetan, 18:30etik 20:00etara; 100 euro.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Pertsona baten bila nabil etxeko garbiketarako egiten lagundu, eta hiru haurrei gosaria eman eta eskolara eramateko. Egunero izango litzake, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 09:30era gutxi gorabehera. Interesatuak deitu mesedez 669 028 202 telefono zenbakira.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Xabier Balerdik Osakidetza udalean lan egiteko utzi duela dio EAJk

EAJren udal taldeak azalpenak eman ditu Xabier Balerdi zinegotziak Osakidetza kargua uztearen arrazoiak zeintzuk izan diren argitzeko

Asier Imaz Tolosa

Tolosako EAJren udal taldea «kezkatuta eta minduta» azaldu da azken egunetan komunikabideetan agertu diren albiste eta informazioekin. Xabier Balerdi zinegotziaren jardun profesionala zalantzan jartzeko bidea eman dutela uste dute, «errugabetasun presuntzioa zapuztuz, hau pertsona ororen eskubidea izanik». Osakidetza kargua Giza Bialiabideen zuzendariorde postua uzteari hedabideek emandako trataera «erabat okerra» izan dela uste dute. Horregatik, zalantzak argitu nahi izan ditu EAJren udal taldeak.

Tolosako Udaleko lana Osakidetza karguarekin «ezin bateratua» izatea izan da, uztera behartu duena: «Xabier Balerdik Osakidetza kargua utzi behar izan du Tolosako Udalean lanean hasi ahal izateko, bi postuak lege ez direlako bateragarriak; irailaren 2an hasi zen udaletxean lanean antolakuntza lan-eremuko koordinatzaile gisa, beste alderdi batzuetako liberatu gehienak bezalaxe. Ez da aurreko eginbideak utzi behar izan dituen zinegotzi bakarra izan», azaldu dute.

Hedabideetan zabaldu den beste puntu bat ere azaldu nahi izan du EAJk: «Xabier Balerdi, orain arte, ez da Osakidetza kargua izan, funtzionarioa baizik».

Azkenik, EAJren udal taldeak argi utzi nahi izan du Balerdik aurretik zuen lana utzi izanak ez duela zerikusirik Osakidetza karguarekin. «Are gehiago, bere karguan izandako erantzukizunak

txukun eta profesionaltasun osoz bete ditu», azaldu dute.

Tolosako EAJren udal taldeak puntu horiek argitu ondoren, argi azaldu nahi izan dute albiste emateko orduan ez dela informazioaren kontrastatu: «Ondorioz, informazioaren trataera ez da zuzena izan; gertaerak ez dira behar bezala kontatu eta horrek epaiketa mediatikoa ekarri du eta hori agerian utzi nahi dugu, aipatu guztiak pertsonarengan eta bere senideengan sortzen duen sufrimenduari inork ez diolako erreparatu». EAJren ordezkarien ustez, informazioak beti izan behar du zuzena eta gardena gizarte demokratiko batean. «Are gehiago, komunikabideen kasuan, zuzenean eragiten dutelako iritziz publikoan eta beraz, erantzukizun eta ardura handia dute». Komunikabideei ondorengo eskaria egin diete EAJren udal taldeak: «Zintzotasunez eta profesionaltasunez jokatzeko eta albisteak argitaratu aurretik, informazioa kontrastatzeko».

KONPROMISOAGATIK, ESKERRAK

Azkenik Xabier Balerdi eskerak eman dizkie, «herriarekin eta herritarrekin herrigintzan aritzeko hartutako konpromisoagatik». EAJko kideen esanetan, «taldean bera bezalako pertsona bat izatea oso aberasgarria da guretzat, eskarmentu eta esperientzia handiko pertsona baita eta ziur gaude ekarpen handia egingo diola, taldeari eta baita herriari ere, eta ziur gaude bere ibilbide profesionalagatik lan bikaina egingo duela udaletxean datozen lau urteetan».





Carlos Lopez tolosar artista, Mikel Laboaren txotxongiloarekin aritu zen; aurrerantzean, Topic-en izango da ikusgai. J. A.

Egitarau oparoa, Topic-en urteurren berezia ospatzeko

Zentroak hamar urte betetzen ditu. Hori dela eta, 'Titereszena 2019' ekimenerako, nazioarteko artista «onenen» lanak ekarriko dituzte ikasturtean zehar.

Josu Artutxa Dorronsoro

Erraz esaten da, baina, atzetik azpiegitura erraldoia duen eta nazioartean geroz eta entzute-tsuagoa den proiektu batek hamar urte betetzeak, gauza asko esan nahi du. Batetik, urte gutxiren buruan, lan handia egin dela, eta bestetik, beste hainbeste urtetan (edo gehiagotan) lanean jarraitzeko moduko lantaldea osatu dela.

Hori da, hain zuzen, Tolosako Topic zentroari gertatu zaiona. 2009an ireki zituen lehen aldiz ateak Txotxongiloen Nazioarteko Museoak. Orain arte, ehunka antzezlan eta obra ezberdin ikusi ahal izan dira bertan, eta horrez gain, erakusketak, tailer edota hitzaldiak ere antolatu izan dituzte. Uda igaro ondoren, *Titereszena* egitasmoa aurkeztu dute, 2019-2020 ikasturteko egitarauarekin.

ERAKUSKETAK, URTE OSOAN

Egitarauaren muina hileroko antzezlanek osatzen badute ere, erakusketak, tailerrak edota bisita gidatuak ere izango dira Topic-en. Gainera, 2020tik aurrera, online ikastaroak ere eskainiko dituzte, plataforma baten bitartez. Irailetik martxora bitarte, Italiako txotxongilo tradizionalak ikusteko aukera izango da. Hura amaitu ostean, martxora arte, Formosako (Taiwan) txotxongilo tradizionalak ikusi ahaliko dira; eta inauterietatik sanjoanak bitarte, *Erraldioen bildumazalea* izeneko erakusketa egongo da.

Horiez gain, prebentzio, bererrerabilpen eta hondakinen birziklapenaren inguruan haurrak eta nerabeak kontzientziazteko proiektuak jarriko dituzte martxan. Gabonetarako nahiz Aste Santurako ere jarduera ezberdinak antolatu dituzte.

ERAKUNDEEN BABESA

Iaz, 118.000 bisitari inguru, 200 ikuskizun baino gehiago eta 23 erakusketa izan ziren Topic-en. Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kultur Sustapeneko ordezkariak, «zentroak arte eszenikoen sektorean izan duen garrantzia» nabarmendu du. Bestetik, Kutxabankeko Ander Aizpuruak eta *El Diario Vasco* egunkariko David Garcia, «zoriondu» egin dituzte Topic-eko kideak, «Tolosa nazioarteko mapan kokatzeagatik», eta zentroa babesten jarraituko dutela baieztatu dute.

Bere aldetik, Olatz Peon Tolosako alkateak, «Tolosari egingandako ekarpena» nabarmendu nahi izan du, «mundu mailan ezagutzera eramateagatik». Gainera, «bertako lantaldearen profesionaltasuna» azpimarratu du: «eskaintza oso zabala eta askotarikoa da».

TITERESZENA 2019

Urriak 19, larunbata

11:30. Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela eta, *Txotxongilolaritza eta Emakumea* izeneko bisita gidatua. Hizkuntza: euskara (gaztelera, 12:30ean).

Urriak 26, larunbata

10:00 eta 12:00. *Biltegia*, ikusezinen lekuabisa eta ikuskizuna. Prezioa: 7 euro. Adina: gazteak eta helduak. Izen ematea: 943 650 414 telefonora deituz edo cit@cittolosa.com helbidera mezua bidaliz (11:00etan eta 13:00etan, gaztelera).

18:30. Kataluniako Mimaia Teatro elkartearen *Peloloco* ikuskizuna, gaztelera. Iraupena: 50 minutu. Adina: 6 urtetik aurrera.

Azaroak 9, larunbata

11:00-13:00. Barazki txotxongilo tailerra. Prezioa: doan. Adina: Familia guztientzat. Izen ematea: pedagogia@cittolosa.com helbidera mezua bidaliz edo 943 650 414 telefonoz zenbakira deituz.

Azaroak 16, larunbata

18:30. Madrilgo Tropos antzerki taldearen *Blanca Nieves* ikuskizuna, gaztelera. Iraupena: 50 minutu. Adina: 4 urtetik aurrera.

Azaroak 23, larunbata

18:30. Gazte eta helduentzako bisita gidatu antzeztuak. Hizkuntza: euskara eta gaztelera.

Azaroak 29, ostirala

20:30. Gazte eta helduentzako bisita gidatu antzeztuak, euskaraz eta gaztelera.

MIKEL LABOA, ETXERA BUELTAN

Idoya Otegi, Topic zentroko arduradunak askotan esan izan du, Tolosakoa ez dela museo soil bat. «Lanean betetako hamar urte izan dira, nazioarteko erreferente bilakatzeraren eraman gaituztenak. Eskerrak eman behar dizkiet proiektua aurrera eraman zutenei. Txotxongiloei esker, herriagatik lanean eta borrokan jarraitzen dugu, maitasun osoz; eta aurten, urtemuga berezia ospatzen ari gara».

Emozioz jota zegoen Otegi, aurkezpenean, malkoei eutsi ezinik. Are gehiago hunkitu zen, Carlos Lopez tolosar artistak, behinola sortu zuen Mikel Laboaren txotxongiloa atera zuenean. «Orain, hemen geratuko da, hau baita bere etxea», esan zuen. Otegik, esker hitzak izan zituen berarentzat: «Tolosan geratzen den txotxongilo sortzaile bakarra da, bikaina».

Abenduak 14, larunbata

17:00. Txotxongilo tailerra eta ikuskizuna. Prezioa: 8 euro. Adina: Familia guztientzat. Izen ematea: pedagogia@cittolosa.com-en edo 943 650 414 zenbakira deituz.

18:30. Xake Produkzioak taldearen *Lur* antzezlan, euskaraz. Iraupena: 60 minutu. Adina: 7 urtetik aurrera.

Urtarrilak 25, larunbata

18:30. Murtziako Periferia Teatro elkartearen *Nube a nube* obra, hitzik gabea. Iraupena: 50 minutu. Adina: 4 urtetik aurrera.

Otsailak 8, larunbata

18:30. Peruko Hugo e Ines taldearen *Body Rhapsody* antzezlan, hitzik gabea. Iraupena: 45 minutu. Adina: 6 urtetik aurrera.

Martxoak 8, igandea

11:30. Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, *Txotxongilolaritza eta Emakumea* izeneko bisita gidatua, euskaraz (12:30ean, gaztelera).

Martxoak 21, larunbata

17:00. Txotxongiloen Nazioarteko Eguna. Tailerra eta ikuskizuna. Prezioa: 8 euro. Adina: ikusle guztientzat. Izen ematea: pedagogia@cittolosa.com-en edo 943 650 414 telefono zenbakira deituz.

17:00. Txotxongilo tailerra eta ikuskizuna. Prezioa: 8 euro. Adina: Familia guztientzat. Izen ematea: pedagogia@cittolosa.com-en edo 943 650 414 zenbakira deituz.

18:30. Giramagic taldearen *Haila pescadora de sueños* antzezlan, hitzik gabea. Iraupena: 55 minutu. Adina: 3 urtetik aurrera.

Apirilak 25, larunbata

18:30. Valentziako L'home Dibuxat taldearen *Zapata berriak* antzezlan, euskaraz. Iraupena: 30 minutu. Adina: 7 urtetik aurrera.

Maiatzak 9, larunbata

17:00. Txotxongiloen Nazioarteko Eguna. Txotxongilo tailerra eta ikuskizuna. Prezioa: 8 euro. Adina: Familia guztientzat. Izen ematea: pedagogia@cittolosa.com-en edo 943 650 414 zenbakira deituz.

18:30. Madrilgo Luna Teatro taldearen eskutik, *Blanca Nieves* ikuskizuna, gaztelera. Iraupena: 45 minutu. Adina: 7 urtetik aurrera.

Maiatzak 15, ostirala

17:00. Museoen Nazioarteko Eguna eta Gau Zuria: Ate irekiak, zuzeneko musika, bisita gidatuak, tailerrak, argazki erakusketa, Fotopic lehiaketa...

Ekainak 7, larunbata

18:30. Gaztela Mantxako La Chana antzerki taldearen *Vulgarcito* obra, gaztelera. Iraupena: 60 minutu. Adina: 7 urtetik aurrera.



ELKARTASUNA, LASTERKA

Elkartasun Eguna ospatu zuten Ibarra, ostiralean. Ekintza nagusia elkartasun korrikaldia izan zen; korrika erakutsi zieten elkartasuna 47 auzipetuei. Plaza inguruan 400 metroan bueltaka aritu ziren, 47 itzuli osatu arte. Gainera, itzuli bakoitzean auzipetu baten argazkia kendu zuten. I. URDALLETA



KASINOAN, AZOKA TXIKI BAT

Arima Tatoo elkarteak antolatuta, Azimut jaialdiaren lehen edizioa ospatu zen, larunbatean, Tolosako Casino elkartearen. Bertan, liburu, disko nahiz binilo klasikoak erosteko, zuzeneko musika entzuteko nahiz disko-jogailu klasikoak ezagutzeko aukera izan zuten bisitariek. JOSU ARTUTXA



Iurrek bigarrenenez jarraian irabazi du

Pasa den astean, Tolosako Plaza Berrian jokatu zen X. Hondartzako Bolei Txapelketa. Finalean, 23-25, 21-15 eta 15-8 irabazi zion Eguzki tabernari.



Lehen sailkatuek, garaikurrak gain, talde osoarentzako otordua eskuratu zuten Lur-Lan jatetxean. E. MAIZ

Eneritz Maiz Tolosa

Jendez gainezka izan zen Tolosako Plaza Berria pasa den astean. Tolobolei elkarteak antolatuta, bertan jokatu zen, tabernen arteko X. Hondartzako Bolei Txapelketa. Larunbatera bitarte, parte hartu zuten 32 taldek zazpina partida jokatu zituzten, eta lortutako emaitzen arabera, sailkapen nagusia osatu zuten. Larunbatean, berriz, postuen arabera, kanporaketak jokatu zituzten guztiek, final hamaseirenetatik hasita. Horrela, 4 talde heldu ziren finalerdietara.

Finalerako txartelen lehian, Eguzki taldeak Cafe Iruña taberna kanporatu zuen, eta iaz finalera iritsi zen Orbela taberna aukerarik gabe utzi zuen Iurre tabernak. Finalaren aurretik, baina, hirugarren eta laugarren postuen lehiarako partida jokatu zuten. Orbela taberna Cafe Iruña taldeari gailendu zitzaion.

Lehen bi postuak erabakitzeko lehia estua izan zen. 23-25 irabazi zuen lehen seta Eguzkik, eta 21-15, berriz, bigarrena, Iurrek. Hirugarrenean erabaki zen txapelduna. Iurrek 15-8 irabazi zuen. Aipatzekoa da, sari berezia, Izarra taldearentzat izan zela. Antolatzaileen ustez, ezuste handiena eman duen taldea izan da.



Izarrak lortu zuen sari berezia; ezuste handiena eman zuen taldea izan zen. E.M.

Irailean ere, festa gosez jarraitu du eskualdeak

Tolosako Izaskun eta Bedaio auzoetan, Elduainen, Zizurkilen, Lizartzan eta Alkizan ospatu dituzte jaiak; hamaika ekitaldi izan dira asteburuan.



Asteburuan ospatutako festetan, haurrak izan ziren protagonista Bedaio eta Izaskun auzoetan, Zizurkilen nahiz Alkizan; haur tailerrak eta jolasak nahiz pilota partidak izan ziren. J. ARTUTXA / I. URDALLETA

Josu Artutxa Dorronsoro

Abuztua izan ohi da, eskualdeko herri askotan, festarako aukera. Han edota hemen, kulturarekin, kirolarekin nahiz gastronomiarekin lotutako ekitaldiak izaten dira. Irailean, ordea, badira zenbait herri, jaietako gosearekin jarraitzen dutenak. Horien artean daude, Tolosako Izaskun eta Bedaio auzoak, Zizurkil, Alkiza, Elduain eta Lizartza. Guztietan, iraileko lehen asteburuaren bueltan ospatzen dituzte festak.

HAURRAK, PROTAGONISTA

Tolosako bi auzoei dagokienez, haurrak izan dira protagonista asteburuan. Izaskun auzoan, haur eta gaztetxoek 3x3 saskibaloia txapelketa jokatu zuten larunbatean. Ederki gozatu zuten auzotarrek, behinola futbol kan txia izan zen plazan. Dozena bat jokalaritik gora aritu ziren, 4 laguneko taldeetan.

Bedaioako frontoian, berriz, haur jolasak izan zituzten larunbatean. Besteak beste, zaku lasterketan, ahoan koilara hartuta arrautza garraiatzen, sagarrari hozka egiten eta kandelak urez itzaltzen aritu ziren. Parte hartze handia izan zen, eta haurrak oso gustura ibili ziren; tartean, guraso batzuek ere hartu zuten parte.

Antzeko zerbait gertatu zen, Aiztondo bailarako herrietan. Zizurkilgo plaza, haurrentzako tailerrez bete zen. Lantegi horietan, herriko buruhandien aurpegiak margotzeko aukera izan zuten, ondoren maskara modura jartzeko, baita koloretako bitxiak eskumuturrekoak egin eta janztekoa ere. Bestetik, festetako ikurra den melokotoiaren txapak egiteko aukera ere izan zen.

Alkizan, berriz, haurren arteko pilota partidak izan ziren frontoian, igandean. Hain zuzen, bi partida ikusteko aukera izan zen. Batetik, txikiak mailan, Iker Gorritik eta Hodei Goenagak 16 eta 11 irabazi zieten Igotz Urruzolari eta Inhar Aranzaberi. Bestetik, nagusiagoen mailan, Oier Olasagasti eta Gorka Vicente 16 eta 10 nagusitu zitzaizkien Oinatz Goenagari eta Eneko Vicenterri.

KULTURA ETA GASTRONOMIA

Igandean, tradizioari eutsi zioten lizartzarrek. Lehenik, dantza soka egin zuten, eta azken urteetako jendetsuena izan zen. Ondoren, Otsolar dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. Elduainen, berriz, hamaiketako egin zuten. Sardina erreak, Ibarako piperrak, txorizoa, sagardoa edota txakolina dastatu zituzten.



Igandean, Lizartzan eta Elduainen, kultur nahiz gastronomia ekitaldiak izan ziren, dantza soka eta hamaiketakoarekin. I. U.

Pentatloiarren finalean izango dira Joseba Otaegi eta 'Arria V.a'



Euskal Pentatloia Sariaren finalerako sailkatu diren sei kirolariak. UROLA KOSTAKO HITZA

Lehen eta bigarren postua lortu dute kanporaketan; Iñaki Errazkin tolosarra zazpigarren izan da

Erredakzioa

II. Euskal Pentatloia Sariaren kanporaketa jokatu zen larunbatean Azpeitian, eta Joseba Otaegi zizurkildarra izan zen lanak bukatzen azkarrena. Bere atzetik bigarren postua lortu zuen Xabier Orbegoza *Arria V.a* Ibarran bizi den errezildarrak. Jende ugari hurbildu zen Azpeitiko zezen plazara.

Lan guztiak amaituta denborarik onena egin zuten sei kirolariek soilik lortu zuten hilaren


21ean Azpeitiko zezen plazan jokatu den finalerako txartela. Txartela lortu dutenak Joseba Otaegi, Xabier Orbegoza *Arria V.a*, Xabier Zaldúa, Luis Txapartegi, Aratz Mugertza eta Joxean Olaskoaga *Aizperro* izan ziren. Mikel Errazkin tolosarrak zazpigarren bukatu zuen.

100 kiloko harriari hamar jasoaldi emanek hasi zuten saioa. Ondoren, giza proban, 400 kiloko harriarekin plaza bat egin behar izan zuten. Jarraian, aizkora hartu zuten: kirolari bakoitzak kana-erdiko bat eta 45 ontzako enbor bat ebaki behar izan zituen. Atzetik, 50 kiloko bi txingarekin hiru plaza egin zituzten, eta, bukatzeko, korrika zezen plazari hamar buelta -kilometro bat- eman zizkieten.

Lanak bukatzen azkarrena Jo-

seba Otaegi izan zen, 13 minutu eta 29 segundoko denbora eginenez. Haren atzetik sailkatu zen *Arria V.a*, 13 minutu eta 33 segundoko denborarekin. Hirugarren sailkatua Zaldúa, iazko txapelduna, izan zen 14 minutu eta 24 segundoko denborarekin. Txapartegik 14 minutu eta 38 segundo behar izan zituen. Mugertzak 15 minutu eta 58 segundotan amaitu zituen lanak. Eta finalerako azken txartela Joxean Olaskoaga *Aizperro*-rentzat izan zen 16 minutu eta 18 segundoko denbora lortuta.

Horiek hilaren 21ean Azpeitiko zezen plazan bertan jokatu den finalean izango dira. Bidean geratu ziren, Errazkinez gain, Jon Gisasola *Zelai V.a*, Jagoba Otaegi, Beñat Amade eta Osmane Drame.



Joseba Mateos eta Erika Amundarain, asteburuan Galizian. ATARIA

Amundarainek eta Mateosek, postu nabarmenak

Erredakzioa

Erika Amundarain billabonatarrak eta Joseba Mateos ibartarrak parte hartu dute Triple Corona Galiziako itsas zeharkaldien bigarren proban, emaitza nabarmenak lortuz. Amundarainek zazpigarren postua lortu du emakumezkoetan, 3.38.02 eginenez, eta Mateosek 16. gizonzkoetan, 3.24.47 markarekin.

Hasiera batean 19 kilometroko

proba egin behar bazen, antolakuntzak murriztu egin zuen lasterketa, eta azkenean igerilariek 12 kilometro egin zituzten, O Groven hasi eta bertan bukatuta. Antolatzaileek azaldu zutenenez, Salvora irla inguruan 30 km/h haizea zegoen, korrante handiak eta uraren tenperatura 14 gradutakoa zen. Baldintza horietan «igerilarien segurtasuna» lehenetsi zutela azaldu zuten, eta horregatik murriztu zuten proba.

Tolosa CFko emakumezko taldearen aurkezpena

TOLOSA // Tolosa CFko emakumezkoen talde nagusiaren aurkezpen ekitaldia egingo dute gaur, 18:15ean, Berazubín, 1. maila nazionalera igo berritan. Añorga KKE eta Logroñes EDF taldeekin aurka jokatu dute. Ondoren, 20:15ak inguruan, urte luzez taldearen ondoan dabilen Sebas Osinalde omenduko dute.

Eskualdeko pilotarien Gipuzkoa Bi taldeak galdu egin du

PILOTA // Aurtengo Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketa hasi da asteburu honetan. Eskualdeko pilotariek parte hartzen duten Gipuzkoa Bi taldeak galdu egin zuten Bizkaiaren aurka 9-1 lehen partidaren. Asteburuko beste partidaren Gipuzkoa Bat taldeak 9-1 irabazi zion Iparralde Bat taldeari.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Eskualdekoek ere ukitu dute

Kontxako Bandera irabazi dute Iraolak Oriorekin, eta Lopezek eta Lizarraldeak Hondarribiarekin

Imanol Garcia Landa

Eskualdeko hainbat arraunlarik parte hartu dute Kontxako Banderan, baina hiruk bakarrik lortu dute bandera ukitzea, trapua asintzea. Emakumezkoetan, Ohiane Iraola tolosarrak Oriorekin irabazi du, eta gizonezkoetan Jon Lizarralde eta Endika Lopez tolosarrek Hondarribiarekin lortu dute.

Iraolak lehenengo aldiz lortu du bandera, eta oraindik kostatzen zaio sinestea: «Igandean bertan, arratsalde osoan, elkar begiratu eta esaten genion ez zela posible, ez zela egia». Bigarren egunera sei segundoko aldearekin iritsi ziren, eta abantaila

la hori aldi berean «asko eta guxti» zela esan du. «Kontxako Bandera irabaztea oraindik gaitu gabe dugu. Eta, oso ohikoa da esatea, baina Orion izandako harreraren amets batean bezala egon ginen. Azkenean esperotakoa baino askoz gehiago izan zen. Ezin dugu gehiago eskatu herriaren aldetik. Oraindik lur hartu gabe gaude».

Estropada eguna gogoan, Donostiara iristerako, taldeak bazekiela zein zen bere egitekoa nabarmendu du arraunlari tolosarrak: «Entrenatzaileak asko aipatu diguna izan da estropadaren bila joan behar genuela, gure lana ahal genuen txukunen egitera joan behar genuela, eta hori lortuz gero, irabazteko ia aukera guztiak izango genituela». Irteera eman zenetik, taldea «konfiantzaz» zegoela dio Iraolak: «Beroketa oso ona egin genuen, eta aurreneko paladak oso onak izan ziren eta horrek eman zigun



Ohiane Iraola, gurasoak eta ahizpa ondoan, Kontxako Banderarekin. ITZEA URKIZU

indar berezi hori hain estropada ona egiteko». Denboraldi guztiko «estropada onena» izan zela esan du, eta azken paladak emozio handikoak izan zirela dio, «ia malkotan» joan zela azalduz.

Lizarralderentzat hirugarren Kontxako Bandera izan da aur-

ten lortutakoa. «2013tik nago Hondarribian, eta 2013an eta 2018an irabazitako banderak bulegoetan irabazitakoak izan direla entzun izan dugu kanpotik. Aurtengoan inork ezin digu trabarik jarri», esan du tolosarrak. Hondarribian, garaipena ospa-

tzerakoan, herritarrekin bizitakoa nabarmendu du, bertako festak zirela gogoan: «Jendea desfilatzen ari zela negarrez ari zen, hunkituta, eta ni, Hondarribikoa bertakoa ez naizela, hunkitu egin nintzen».

Estropadan garbi zuen Lizarralde oriotarrak estutzen saiatuko zirela. «Guk bagenekien gure lana egin behar genuela, atzetikedo aurretik joan. Ikusten genuen aurretik zihoazela une batean, baina ziaboga baino minutu eta erdi lehenago olatuak hartzen hasi ginen eta berreskuratu genuen pixka bat, aurrean jarri eta gero hor mantendu ginen aurretik. Bigarren egunean ere estropada irabazi nahi genuen eta hori ere lortu genuen», esan du Lizarralde.

Beste bost arraunlari izan dira parte hartzen Kontxako Banderan: Nerea Perez tolosarra (Hondarribia), Naroa Urkola anoetarra eta Olatz Lopez tolosarra (Donostiara), Eneko Zabala adunarra (Kaiku), eta Garikoitz Lopetegi billabonatarra (Zierbena).

Ait Chaou, bigarren, Axari Trail proban

Iñaki Olano altzotarrak bosgarren egin du Idiazabalgo proban eta Goierriko Trail Kopa irabazi du

Erredakzioa

Axari Trail mendi lasterketa izan da jokoan Idiazabalen, eta gizonezkoen proban bigarren postua lortu zuen Hassan Ait Chaou billabonatarrak, Aritz Egea irabazlearengandik 6 minutu eta 26 segundora. Iñaki Olano altzotarrak bosgarren postua lortu zuen, 8 minutu eta 20 segundora. Hori horrela, Olanok Goierriko Trail Kopa irabazi du, guztira 242 puntu lortuz; bigarren egin duen Sergio Serranok 184 puntu eskuratu ditu.

Emakumezkoetan Oihana Zubillaga anoetarrak laugarren postua lortu zuen, Laida Garai irabazlearengandik 18 minutu eta 7 segundora. Bestalde, Irene Iturria tolosarra lehenengo postuan helmugaratu zen kadete mailan Axari Trail Txiki proban.



Hassan Ait Chaou, probaren une batean. ANDREA ARANBURU/GOIERRIKO HITZA



Iñaki Olano, Goierri Trail Koparen txapelarekin. ANDREA ARANBURU/GOIERRIKO HITZA



Intxurre eta Segurako futbolariak, larunbatean. INTXURRE FUTBOL TALDEA

Bertako Igogailuak lehen torneo irabazi du Intxurrek

Erredakzioa Alegia

Intxurre eta Segurako taldeek lehenengo Bertako Igogailuak torneo jokatu zuten Elorri zelaian, Alegiako futbol taldeen aurkezpen modura baliatuz. Zehazki gizonezkoen infantil, kadete, juvenil eta erregionalen mailetan jokatu zuten, eta Intxurrek irabazi zuten.

Infantilak izan ziren lehen neurketako protagonistak eta Intxurrek 11 eta 4 irabazi ziren segui-

rarrei. Ondoren juvenilen partida jokatu zen eta kasu honetan ere garaipena etxean geratu zen, 8 eta 2ko emaitzarekin. Arratsaldean beste bi partida jokatu ziren. Kadeteetan Intxurrek 3 eta 1 irabazi zuen, eta erregional mailako partida ere alegiarrentzat izan zen, 5 eta 2ko markagailuarekin.

Horrenbestean, jokaturiko lau partidak irabazita, Bertako Igogailuak torneoaren lehen ekitaldia Intxurrek irabazi zuen.



ASTEARTEA, 2019KO IRAILAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Futboleroak txapelketa Herrikide Jesuitinetan, 16:30etik 18:30era. Areto futbola eta ginkana izango dira gaztetxoentzat, futbola eta Futboleroak liburuari buruzko probak uztartuz.

Erakusketak

Tolosa. Speeltheater Holland Topic-en, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Speeltheater Holland, Onny Huisink eta Saskia Jansek 1976an sortu zuten txo-txongilo konpainia holandarra izan zen. Konpainia 40 urte baino gehiagoz mundu guztian zehar biran ibili zen, gazte zein helduentzat antzez-tuz. Txotxongiloak aktore antzerkia, dantza eta musika bezalako arteekin uztartzeak dakarren berrikuntzarengatik nabarmendu ziren.
Tolosa. Ríaq Miuq artistaren *Las sombras bajo las estrellas* erakusketak GKO Gallery-n.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika izango da entzungai.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Elkarriketap (Mari Luz Esteban).
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:15. Ireki Kaxa.
22:45. Zer jan
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 673274.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9. 943 675118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Ipar mendebaldeko haizeak eta fronte batek zeru estalia utziko digu. Europa sarri botako du, gainera euri zaparrada mardulak izango dira. Euri zaparrada hauek, goietan aire hotza dagoenez, ekaitz modukoak izango dira eta eguraldi benetan ezatsegina izango dugu. Temperatura maximoek nabarmen behera egingo dute eta eguneko erdiko orduetan 14-16 gradura iritsiko zaizkigu termometroak.



Bihar. Eguraldi ezatseginarekin jarraituko dugu, baina arratsaldean hobera egingo du. Goiz partean ipar haizea ibiliko zaigu, itsasotik hodei dezente sartuko dira eta oraindik ere zaparradak botatzen jarraituko du. Arratsaldean egoera arintzen hasiko zaigu eta giro lasaigoa geratuko zaigu iluntzerako. Termometroek pixka bat gora egin, eta eguneko erdiko orduetan 16-18 gradura igoko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



MENDIAN ERE IGERI

Harri ertzean igeriizenburua jarri dio Udako Argazki Lehiaketako parte hartzaile honek irudiari. Erakusten duen moduan, ez dago itsasoan busti beharrik igeri egiteko. Jasotzen ari garen argazkiak ikusgai daude ataria.eus webgunean, eta bertan daude parte hartzeko argibideak ere. Irailaren 22a da argazkiak bidaltzeko azken eguna. ATARIA



Bi laguntzako asteburu bateko egonaldia KURTIXIA Landetxearen eskutik.

www.kurtixia.com 946840607 • 616945662 • Kurtxiaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria

Igo hemen zure argazkia



Lau laguntzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Zumardia elkarteak eskaintako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

https://www.zumardia.eus/
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria